

LAURA BAIGORRI

1. Aro bakoitzak birdefinitu egiten ditu jokoan dauden eragileak eta osagaiak, bizi dituen eraldatzeen arabera. Sare-gizartearen aroan inskribatuta egoteak sakoneko eraldatzeak dakartza gizartearen edozein geruzatan, eta, horrenbestez, baita irakaskuntzan ere. Ondorioz, Espainiako unibertsitateetan ematen den ikusizko arteen irakaskuntza modu erabakigarrian baldintzatzen dute aldaketa teknologikoen -aldaketa sozio-ekonomiko eta politikoen ondorio zuzenak-, eta horrek ekartzen du informazioa eskurago egotea eta nolabaiteko deshierarkizazioa ere bai, taldelan-sare gehiago sortzea, kanpoko lankidetzara zabalik egotea, eta sortzen ari diren praktiken egunerokoan ikertze lan honez gero ezinbestekoa aurrera eramatea.

Alabaina, errealtate berri horrek bere aldetik eskari berriak sortu ditu, eta horiei Espainia alorrean erantzutea kosta egiten zaio unibertsitateko akademiaren mantsotasun ezagunari, halako moldez, non Espainiako goi mailako ikasketetan bizi izandako egoerak askotarikoak izan daitezke, azken batean irakasleen beraien artean sortzen diren sinergien baitan baitaude. Hortaz, ezagutzen dudan testuinguruaz eta Bartzelonako Unibertsitateko Arte Ederren nire esperientzia pertsonalaz hitz egingo dut.

Aldaketa nagusi bat izan da irakaslearen zeregina lekualdatzen ari dela, lezio magistraletik bitartekotzara: berrikuntza teknologiko etengabeek gainditu egin dute ikasketa espezializaturako gure gaitasuna, eta irakasleak ez dauka nahitaez ikasleak baino informazio gehiago; datu teorikoak eman edo informazio ezezaguna erakutsi baino gehiago, saiatu egin behar du solaskide baliagarria izaten haien lan prozesuan. Horrek ikerketa lan etengabea dakar aldi berean, ezagutza esparru desberdinak elkarrekin lotzea ahalbidetuko diona.

Ikasleek teknologiaz duten liluraren ondorioz, Fakultate honetan ere interes lekualdatze progresibo bat gertatu da diziplina tradizionalagoetatik (margolaritza, eskultura) medio berriei lotutako arte praktikara, eta horrek masifikazioa ekarri du alor horiek irakasten diren departamentuetara.

Egoera horrek ez du nahi eta nahi ez ekarri ekoiztiko lanen kalitate hobetzea -maiz erabiltzen den aitzakia, gailu teknologikoen aurrean gure gizartearen inkultura kritikoa erakusten duena-; bai, ordea, ikasleen autonomia areagotzea kalitatezko lanak aurrekontu gutxirekin egiteko orduan, eta horri esker zenbait lan zuzenean pasatu ahal izan dira artearen zirkuitu nola alternatibo hala instituzionaletara, eta egoera hori pentsaezina zen duela oso gutxi.

Azkenik, oraindik ere oztopo handienetako bat da azpiegitura teknologikoaren eskasia, baliabide horien erabat mendean dagoen irakaskuntzaren gaiak behar bezala irakatsi ahal izateko.

2. Lehenengo eta behin, ikus-entzunezko bihurtze hori ez litzateke aurkeztu behar aldaketaren motor baten antzera, garen hori -“halakoak egin baikaitu”- eratzen duen indar gisa baizik. Telebistak, ikus-entzunezkoaren sasikoa den aldetik, ahalbidetu du hura etxe barruan sartzea eta geure bizitzen gainean genuen ikusmoldea aldatzea (bide batez, amets

egiten al genuen plano zenitalekin zinema iritsi arte?). Norberaren bizitza film baten moduan kontzeptualizatzea zinematografikotasunaren indar hezitzailearen sinbolo bat da.

Edozeinetara dela ere, absurdua da pentsatzea ikus-entzunezkoak idatzizko kulturarekin bukatuko duenik, biak teilkatu eta hibridatu egiten baitira elkarrekin: baliteke liburu gutxi saltzea, baina inoiz baino gehiago irakurtzen da (blogak, wikiak, eztabaidaguneak, eta, oro har, Sarean). Beharbada igortzailea hartzailearen maila berean jartzeko sareak eskaintzen dituen aukeretan dago benetako aldaketa. Eta deshierarkizazio hori ikasgeletara ere (noiz-nola) extrapola daiteke.

Beste aldetik, alor horretako ezagupen teoriko sorta bat transmititzeko orduan irakaslearen zeregina ezinbestean dator “praktika kokatu” batetik, zeren eta ikus-entzunezkoen espezializazioa behin betiko zabaldu da bizitzara, eta jada ez dago mugatuta testuinguru akademiko irazgaitz batera. Joera izaten da eguneroko praktikatik ateratako baliabide eta ezagupenak txertatzea. Agian Interneten aurkitzen dugu adibide argiena, azken urteotan ikasgelan ezinbesteko baliabide bilakatu baita: bai nire saio magistralak (izaten da halakorik) bai ikasleen aurkezpenak haren inguruan egituratuta daude, dela net-art-en kasu saihestezinean, dela bideoa eta medio berrien kasuan, zeren eta horietan informazioa, eta sarri askotan baita lanak ere, modu iraunkorrean baitaude eskura on-line (areago, saio batean ari garela Googlen kontsultak egitea eguneroko gauza izaten da.

3. Irakasten daramatzadan hamahiru urteotan sartu ditudan aldaketek zerikusia dute ikasgelan gertatzen diren rol tradizionalak birdefinitzeko saioarekin -lehen aipatu dudan lekualdaketa lezio magistraletik bitartekotzara-, batez ere karreraren azken urtean eta doktoretza edo master mailetan, horietan solaskidetzak lehentasuna baitu.

Aipatutako baliabideak erabiltzeaz gain, badira ekimen zehatzak ideia hori bultzatzeko, hala nola ikasleekiko eta ikasleen arteko esperientziak partekatzea, batzuetan lan garrantzitsua egiten baitute esparru oso espezializatuetan: robotika, irratia, bideojokoak... Saiatzen naiz halaber Fakultatetik kanpoko eragileekiko trukea arintzen: gero eta profesional eta artista gehiago etortzen dira ikasgelan beren esperientziak partekatzera, eta gero eta gehiago bultzatzen ditut ikasleak hiriko kultur espazioetan izaten diren gertakarietara joan daitezen.

Ikasketa ikasleak kanpoko mundura irtetera bideratutako entrenamendu garaitzat jotzea da abiapuntua. Betiere lanaren garapen prozesuala azpimarratuz, nire irakaskuntzak barne hartzen du bai ikerketa teorikoa (ikuspegi gogoetazko/kritikoa) eta praktikoa (proba/hutsa) sustatzea bai norberaren lanaren sustapen eta hedatzearekin edo lanbide orientabidearekin zerikusia duten mota guztietako gaitasunak garatzea.

Laura Baigorri Bideo Irakasle Tituluduna da Bartzelonako Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean, eta Arte eta Medio Berrietan espezializatuta dago. “El transmisor” izeneko informazio alternatibozko direktorioa sortu du <http://www.interzona.org/transmisor.htm>, baita “Arte en Red” (1997-2000) eta 2001etik aktibo dagoen “DATA.ART” <http://www.mediatecaonline.net/datart> media-art direktorioak ere. Epaimahaikide eta komisario funtzioak bete izan ditu, bai mintegiak bai tertuliak antolatu ere: bideoaz, net.artez eta oro har medio berriez. Artikuluak eta saiakerak argitaratu ditu sareko arte eta aktibismoaz eta bideo independenteaz, eta honako liburu hauek: “Net.art. Prácticas estéticas y políticas en la Red” (Lourdes Cilleruelo-rekin batera, Brumaria, 6. zk., 2006) eta “Vídeo. Primera etapa: El vídeo en el contexto social y artístico de los años 60/70” (Ediciones

Brumaria, 4. zk., 2004), Gironako Fundació Espais-ek emandako 2005eko Arte Sorkuntza eta Kritika Saria. Idatzi ditu orobat “El vídeo y las vanguardias históricas” (UB, 1997) eta “Video Digital de Creación” (UOC, 2004) unibertsitaterako eskuliburuak.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu